

Sarrerak lortzeko hainbat metodo pentsatu ditugu;

- Parking enpresekin, saltoki nagusiekin negoziatuko dugu, win win erlazio bat dugula uste dugulako, eurek bezero diruduna (normalean kotxe elektrikoak garestiak direlako) erakarriko dute kotxe elektrikoentzako karga sistema berritzailea dutela esanez, eta guk dirua irabaziko dugu bezeroak gure zerbitzua erabiltzeagatik eramaten dugun komisioarekin. Hau da, eurek parking plazak eskainiko dizkigute guk euren saltokietara erakarriko ditugun bezero berrien truke.
- Gure bezeroak 3 kategorietan banatuko ditugu aplikazioaren barne.
 1. Platino: 4.000+ km baino gehiago kargatuta hilabetean, hurrengoan dohaineko karga oso bat izango dute eta hurrengo hileko karga guztietan %15eko deskontua izango dute.
 2. Urrea: 1.500-4.000 km baino gehiago kargatuta hilabetean, hurrengo hileko karga guztietan %10eko deskontua izango dute.
 3. Zilarra: 500-1.500 km baino gehiago kargatuta hilabetean, hurrengo hileko karga guztietan %5eko deskontua izango dute.



Idea honekin bezeroen artean lehiakortasuna sortuko dugu eta gure produktua gero eta gehiago erabiltzen saiatuko dira, guk ia ezer egin gabe.

Honako ligen ereduaren antzekoa du duolingo-k, ahalik eta gehiago erabili, liga altuagoa.

- Zerbitzua erabiltzean portzentaia bat eramatea, hau da, autoa kargatutako bakoitzean komisio bat eraman. [Elektrolinaren batz besteko prezioa KW/H-ko 0.50€ da.](#) Beraz, gure zerbitzua eskaner eta karga inalambriko gehigarriarekin uste dugu gurea 0.70€ KW/H-ko prezioa izatea onena dela. Normalean kotxe elektriko batek 40 kw/h-ko bateria du, horrekin batz beste 300 km egiteko nahikoa da, [Espainian batzbeste 1000 km egiten direnez](#) hilero kotxearekin, 3 karga osoak izango dira gutxi gora behera. Honek 120 kw/h-ko suposatzen du, eta gure 0.7€ tasarekin 84 euro izango litzateke hilabeteko batez beste, Inolako beherapenik gabe.
- Aurrerantzean, kargadore gehiago instalatutakoan, nahiz eta app-aren instalazioa dohainezkoa izaten jarraitu, eskubide eta pribilegio gehiago lortzeko ordainketa ezarriko dugu, batik bat, hileko kuota bat ordainduz gero beti karga ultra azkarra jasotzeko aukera izango dute, balio gehigarri gisa. Hau merkeagoa izango da gure app Premium-a dutenentzat, azkar kargatu nahi duten bakoitzean aparte ordainduko dutenek baino. Horretaz aparte,


Premium zerbitzua izanda, karga amaigabeak edukiko dituzu, eta prezioa batez besteko batean Premium izan barik 84 euro hileru bazen, hau karga ultra azkarra eta amaigabearen balio gehigarria gehituz, Premium zerbitzua 120 euro hilean izatea pentsatu dugu.

(Amazon Prime-n eredia jarraituz.)

Idea hori jarraituz, inskripzioa gero eta luzeagoa izanez gero, orduan eta deskontu handiagoa jasoko du erabiltzaileak.

-Gaur egun [Espainian 25000 kotxe elektriko daude](#), horietatik 4000 Euskal Herrian daudela estimatzen da.

Espainiako kotxe elektrikoak



[Kotxe elektrikoaren erabilera ulertzeko azalpenak](#)